

Angel Erro

♦ IDAZLEA



JOSU SANTESTEBAN

Bi zutabe

GAURKO EUSKAL GIZARTEAREN zutabeetako bat elebitasuna da. Madarikazio arranditsu, salomondar, *erakunde* *dekoi* bat ematen du, hiritarrok egonarriz eraman beharrekoa. Denbora edo tokia galtzeko egokia eta, txistean esan bezala –batek galdetu du nola idazten den halakoa euskaraz; “hizki gris eta txikiagoetan”, erantzun du besteak–, zenbaitetan ikusmenaren galgarria, Nafarroan bederen. Baina gorrotoak itsututa ez gauden heinean, arrazoizkoa dirudi bi hizkuntzek trataera berdina izateak.

Honek, argi eta garbi, kaltea dakarkio biak ulertzen dituenari, ahozko jardun asmo oneko eta hizkuntza-politikoki zuzenetan berbaldi bera bikoitz jasan behar baitu (hastioa ez ezik, barneko filologoari bazka emanez, edukitik deskonektarazi eta huskeria linguistikora emanez, bietako zein hizkuntzatan idatzia izan den jatorriz eta zeineta izan den gogogabe itzulia, hots, bietako zein den menpekkoa, eragozpen aspergarria). Antidoto moduan, euskaldunek baloratu ohi dute edukiak berdin-berdinak ez izatea, elebidunek plus bat jasotzea, elebakarrari akuilutzat balio liezaiokeenik, nahiz eta dudazkoa den azken honentzat etenaldi exotiko horiek funtsezkoa heldu baino lehenagoko berotze ariketak ez beste ezer direnik.

Edonola, guk egiten ez dugun euskara ez du gure ordeztu beste inork egingo, eta, ondorioz, euskara normalizatuko badugu, “elebitasun asimetrikoiari” eutsi behar diogu, hizkuntza gutxitua lehenetsiz, Gipuzkoako Aldundiak agerraldi publikoetan egin behar omen duen bezala. Horregatik hainbesteko polemika piztu dute Arnaldo Otegiaren *El tiempo de las luces* elkarrizketa liburuaren hizkuntza aukeraketak eta argitaratzailearen ondorengo azalpenek. Mamu bat dabil euskalgintzan zehar: baliorik ezaren mamua. ■

Antton Olariaga

Dos columnas

LA OTRA COLUMNA DE LA ACTUAL sociedad vasca también es el bilingüismo. Parece una maldición solemne, salomónica, boletín-oficial, con la que debemos cargar pacientemente los ciudadanos. Una pérdida de tiempo o espacio, que, como en el chiste –uno pregunta cómo se escribe tal cosa en euskera; le responden “en letra gris y más pequeña”–, puede perjudicar a la vista, sobre todo en Navarra. Pero hasta donde el odio no ciega, parece razonable sostener que las dos lenguas sean tratadas igualmente.

Esto, obviamente, ocasiona perjuicios al que entiende las dos, puesto que en comunicaciones orales bien intencionadas y político-lingüísticamente correctas éste tiene que oír por duplicado la misma perorata. Por eso mismo, y porque, como, citando a Shakespeare, nos recuerda Rikardo Arregi Díaz de Heredia en su nuevo poemario, *Bitan esan beharra*, ya la vida es el aburrido relato contado dos veces al oído sordo de un hombre somnoliento, suele juzgarse preciso modular el discurso, incluyendo pequeñas variaciones, a fin de evitar, en la medida de lo posible, el tedio que acabe adormeciéndonos en la más completa inactividad.

Sin embargo, nosotros propugnamos una solución más audaz que la asimetría: “el bilingüismo contradictorio”, consistente en que ambos textos presenten diferencias tan pronunciadas que terminen por negarse mutuamente, sublimando el fin de la traducción, la única disciplina cultural que se resiste a abandonar el mito de que hay una verdad traducible, una esencia comunicable. Abogamos por la enantiodromía, por la unión de contrarios. O dicho, sin traducir, en palabras de Gabriel Aresti, “Heuscal-herrian situatióne chaotico bat dago chaos handiago batequin sunsitu behar duguna”. ■

